



LUIS VILLASANTE KORTABITARTE
ONOMASTIKAZ II. JARDUNALDIAK
AMAIERAKO HITZAK

Jaun-andreak:

Gauza guztiek izaten dute beren azkena, eta hala gertatu zaie gure Jardunaldi hauei ere. Uste dut urrats bat eman dela beroietan gure herriaren altxorra –gutziz ere orain euskaldun ez diren eskualdeetako– arakatu baita. Lan baliotsuak aurkeztu dira eta aspalditik idatzirik den dokumentazioa iker-tzearen bidetik sartu direnak gero eta gehiago direla ikusi da. Horrek bide ona aurkitzen asmatu dugula esan nahi du.

Ekologia zaindu nahi den une honetan, herri baten eta hizkuntza baten altxorra den Onomastikari ere basa ematea gutziz da bidezko eta beharrezko.

Gizarte-modua zeharo aldatu den mende honetan hainbeste izen arras galtzeko zorian dira. Horrek, ordea, biltze eta jasotze lan horien premia premiatsuagoa bihurtu du.

Eskerrak eman nahi dizkiet Jardunaldion parte hartzaile, antolatzaile eta babestaileei. Gainera, Jardunaldi hauek loturik egon dira Licenciado Pozaren liburuaren laugarren mendeurreneko ospakizunaz. Guztien gogoan geldituko da ospakizun hura, Coseriu, Gonzalez EcheGARAY eta abarren hitz jakintsuaz gantzutua egon baitzen. Azkenik, eskerrak bere laguntzaz gauza guzti hauek egiteko ahalbidea paratu diguten agintari jaunei.